



Centro
de Estudios Ambientales

CEA

Ingurugiro
Gaietarako Ikastegia

INGURUGIRO GAIETARAKO IKASTEGIAK
ANTOLATUTAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEN
DUTEN IKASLEEN GARRAIOA DIRUZ
LAGUNTZEKO DEIALDIA

2014KO URTARRILETIK EKAINERA



INGURUGIRO GAIETARAKO IKASTEGIAK ANTOLATUTAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEEN GARRAIOA DIRUZ LAGUNTZEKO DEIALDIA

2014ko urtarriletik ekainera

1. DEIALDIAREN XEDEA

Gasteizko ikastetxeei laguntza ekonomikoa ematea da diru-laguntza deialdi honen xedea, haien ikasleak Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak 2014ko urtarriletik ekainera bitartean antolatutako jardueretara eramateko

2. NORI ZUZENDURIKO BALIABIDEA

Ondoko betebeharrak betetzen dituzten ikastetxeek eskuratu ahal izango dituzte garraiorako laguntza hauek:

- Ikastetxea Gasteizko udalerrian kokatua egotea edo, gutxienez, ikasleen % 60 udalerrian erroldatua egotea.
- Ikasle guztiek edo horietako batzuek 2014ko urtarriletik ekainera bitartean Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak ikasleentzat antolatu dituen jardueretako batean parte hartu izana.
- Jarduera horietan parte hartzeko garraio kolektiboren bat erabili behar izana, ikasleak ikastetxetik jarduera burutu den tokira eta/edo handik ikastetxera eramateko.

3. AURREKONTU ZUZKIDURA ETA DIRU- LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren aurrekontuko 0110.4444.47104 partidan bada aski krediturik: **7.500,00 €**.

Gehienez, behar bezala justifikatutako gastuaren % 50eko diru-laguntza emango dio Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak ikasleen garraiorako gastua egin behar izan duen ikastetxe bakoitzari.



4. ESKABIDEA AURKEZTEKO EPEA ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Ikastetxeak aurkeztu beharko du diru-laguntza eskabidea, **2014ko ekainaren 27a** baino lehen, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko erregistroan (Olarizuko etxaldea, z/g, 01006, Vitoria-Gasteiz).

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie eskabideei:

- Eskabidea (*I. eranskina*), ikastetxeko zuzendaritzak aurkeztua.
- **Garraio-gastuen justifikazioa** egiteko, zenbatekoa, jarduera eta hori burutu den eguna jasotzen dituen jatorrizko fakturak aurkeztu beharko dira sailean (*II. eranskinarekin batera*). Fakturen kopia aurkeztuz gero, jatorrizko fakturak ere erakutsi beharko dira konpultsatzeko (*III. eranskinarekin batera*).
- Ikastetxea Gasteiz udalerritik kanpo badago, baina ikasleen % 60 baino gehiago udalerrian erroldatua badago, ikastetxeko zuzendariak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren edo zentroko zuzendaritzaren eta idazkaritzaren ziurtagiria aurkeztu beharko du ikasle horien ehunekoari buruz.

5. DEIALDIAREN EBAZPENA

Dirulaguntza emandakotzat hartuko da, bi baldintza betez gero: batetik, aurkeztutako eta onartutako eskabideak oinarri hauetan ezarri diren irizpideekin bat etortzea; bestetik, aurrekontuetan nahikoa kreditu egotea. Bestela, onartutako eskabideen artean, hainbaketari ekingo zaio.

Edonola ere, prozeduraren ustezko ebazpena 2014ko uztailaren 11 baino lehenago egingo da, ekitaldia amaitzearekin batera.

6. DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEA ETA JUSTIFIKATZEA

Dirulaguntza jaso duen jardueraren ondoriozko gastuak justifikatzeko egiaztagiria aurkeztu ondoren egingo da ordainketa. Hau izango da ordaintzeko epea: 2014ko uztaila, 2014ko urtarritik ekainera (biak barne) egindako jardueretako gastuetarako.

Dirulaguntza honen ordainketa gauzatzeko, Ingurugiro Gaietarako Ikastegian dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Foru Ogasunaren ordainketetan eguneratuta egotearen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzaren ordainketetan eguneratutako egotearen ziurtagiria.



7. ITZULKETA

Vitoria-Gasteizko Udaleko dirulaguntzei buruzko udal-ordenantzen 20. artikuluan zehaztutako egoeraren bat egokituz gero, jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, eta, era berean, dirulaguntzaren ordainketa-egunetik aurrera sortutako berandutze-interesak ordaindu beharko dira.

Itzultzeko jardunbidea dirulaguntzei buruzko udal-ordenantza horretan xedatutakoa izango da, onuradunaren jokabideari lotutako arau-hausteak eta zehapenak gorabehera.

8. LAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Ematen den diru-laguntza bateragarri izango da helburu berarekin beste edozein erakunde publiko edo pribatuk ematen dituztenekin, jardueraren gain-finantziatorik gertatzen ez den bitartean. Halakorik gertatuz gero, murriztu egingo da diru-laguntzaren zenbatekoa, gehienezko mugaraino.

9. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

- Gasteizko Udalaren Kontu-hartzaitza Nagusiari dagozkion ikuskatzeko eta finantzak fiskalizatzeko lanak onartu eta laguntzea.
- Helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero, jakinaraztea.
- Diru-laguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiari horren berri ematea, nahiz zerbitzu horrek eskatzen duen edozein informazio ematea.
- Diru-laguntzei buruzko udal ordenantzako betebeharrak betetzea

10. ARAU-HAUSTEAK ETA ISUNAK

Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak arautzeko Ordenantzan xedatutakora egokituko da arau-hauste eta zigoren erregimena.



Centro
de Estudios Ambientales

CEA

Ingurugiro
Gaietarako Ikastegia

11. APLIKAGARRI DEN LEGEDIA

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko alderdietan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrari jarraituko zaio, herri-administrazioek emandako dirulaguntzetan aplikatu beharrekoa baita. Era berean, ekainaren 19ko 7/1997 Legea beteko da, dirulaguntzen eta laguntzen erregimena arautu eta Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren antolarauak finkatu zituen (135. zk.ko EHAA, 1997ko ekainaren 16koa). Azkenik, dirulaguntzei buruzko udal-ordenantza beteko da.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko martxoaren 14 an

Idoia Garmendia Telleria

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Presidentea



Centro
de Estudios Ambientales

CEA

Ingurugiro
Gaietarako Ikastegia

I. ERANSKINA

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak antolatutako jardueretan parte hartzen duten ikasleen garraioa diruz laguntzeko deialdia

2014ko urtarriletik ekainera

_____ jaunak/andreak,
nortasun agiria , _____ ;
_____ ikastetxeko zuzendaria den aldetik
IFK/IFZ: _____ Helbidea: _____

HONAKOA ADIERAZTEN DU

INGURUGIRO GAIETARAKO IKASTEGLAK ANTOLATUTAKO JARDUERETAKO PARTE HARTZAILEEI HORIETARA JOATEKO GARRAIOA DIRUZ LAGUNTZEKO deialdiari jarraiki

ESKATZEN DU

goian aipatutako deialdiaren barruko laguntza eman dakion.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko _____

(izenpea eta zigilua, jatorrizkoak)

INGURUGIRO GAIETARAKO IKASTEGLAREN PRESIDENTEA

Udal kudeaketari dagozkion zereginak egitea beste helbururik ez duten fitxategietan sartuko dira zure datu pertsonalak. 15/1999 Lege Organikoak aitortzen dizkizun eskubideez baliatu nahi baduzu, jo ezazu _____
Gasteizko Udalaren Argibide Bulegoetakoren batera



Centro
de Estudios Ambientales

CEA

Ingurugiro
Gaietarako Ikastegia

II. ERANSKINA

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak antolatutako jardueretan parte hartzen duten ikasleen garraioa diruz laguntzeko deialdia.

2014ko urtarriletik ekainera

Jatorrizko fakturen egiaztatzea

(Diru-laguntzak justifikatzeko jatorrizko fakturak aurkezteko idazkia)

_____ jaunak/andreak,

Elkartearen izena: _____

EGIAZTATZEN DU:

Aurkezten diren faktura, ordainagiri eta/edo gastu-egiaztatzeak aurreikusitako helburu edo xedea lortze bidean sortuak direla (INGURUGIRO GAIETARAKO IKASTEIAK ANTOLATUTAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEEN GARRAIOA DIRUZ LAGUNTZEKO DEIALDIA.) eta ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren ekarpena baliatu zela horiek finantzatzeko.

Eta egiaztatze baliok izan dezan, Udalaren Diru laguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantzaren xedatutakoa betez

Vitoria-Gasteizen,

(izenpea eta zigilua, jatorrizkoak)

Jaun/andrea _____

Udal kudeaketari dagozkion zereginak egitea beste helbururik ez duten fitxategietan sartuko dira zure datu pertsonalak. 15/1999 Lege Organikoak aitortzen dizkizun eskubideez baliatu nahi baduzu, jo ezazu Gasteizko Udalaren Argibide Bulegoetakoren batera



:

III. ERANSKINA

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak antolatutako jardueretan parte hartzen duten ikasleen garraioa diruz laguntzeko deialdia.

2014ko urtarriletik ekainera

Jatorrizko fakturen kopien egiaztatzea

(Diru-laguntzak justifikatzeko jatorrizko fakturen kopiak aurkezteko idazkia)

_____ jaunak/andreak,

Elkartearen izena: _____

EGIAZTATZEN DU:

Aurkezten diren faktura, ordainagiri eta/edo gastu-egiaztagirak aurreikusitako helburu edo xedea lortze bidean sortutako kopiak ak direla (INGURUGIRO GAIETARAKO IKASTEGIAK ANTOLATUTAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEEN GARRAIOA DIRUZ LAGUNTZEKO DEIALDIA.) eta ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren ekarpena baliatu zela horiek finantzatzeko.

Jatorrizko agiriak eskuragarri daude, ikuskatu nahi izanez gero ere.

Eta egiaztagiri balioa izan dezan, Udalaren Diru laguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantzan xedatutakoa betez

Vitoria-Gasteizen,

(izenpea eta zigilua, jatorrizkoak)

Jaun/andrea _____

Udal kudeaketari dagozkion zereginak egitea beste helbururik ez duten fitxategietan sartuko dira zure datu pertsonalak. 15/1999 Lege Organikoak aitortzen dizkizun eskubideez baliatu nahi baduzu, jo ezazu Gasteizko Udalaren Argibide Bulegoetakoren batera